

**UDALBILTZA.** Euskal diasporarekin lanean jarraitzeko asmoa dute



AMAIA ZABALO

Udalbiltzako Batzorde Eragileko kideek prentsurrekoa eskaini zuten atzo.

## Arkotxa eta Etxezaharreta kargurik gabe aske utzi ditu epaileak Uruguain

Udalbiltzaren nazioarteko lana «oztopatu» nahi izan dutela dio Goñik

Garbiñe Olaizola | **ASTIGARRAGA**

Loren Arkotxa Ondarroako alkatea eta Xarlo Etxezaharreta Kale Gorrian aldizkariaren zuzendaria, biak Udalbiltzako Nazioarteko arduradunak, aske gelditu ziren kargurik gabe, atzo, Uruguain, epailearen aurrean deklaratu ostean. Arkotxa eta Etxezaharreta Montevideoko aireportuan atxilotu zituzten herenegun eta Inteligentzia Departamenduan izan ziren hamar orduz, aske utzi zituzten arte. Atzo 13:00etan (17:00ak Euskal Herrian) pasa ziren epailearen aurretik eta honek aske utzi zituen.

Biak azaroaren 6an abiatu ziren Argentinara eta Uruguaira euskal diasporarekin harremanetan jartzeko asmoz.

Hedabide batzuen arabera, bi ordezkariak «agiri faltsuak» zeramatzelako atxilotu zituzten. Hala ere, Udalbiltzako iturrien arabera, epaileak ez ziren agiriei buruzko galderarik egin. Bai, ordea, Udalbiltzaz eta bidaiarako prestatu zuten programaz.

«Agiri faltsuei» buruzko informazio hori ere gezurtatu egin zuten atzo, Udalbiltzako Batzorde Eragileko kideek prentsurrekoan: «Egunak zeramatzen bidaiatzen eta aurretik Argentinan ere izan ziren». In-

formazio hori «zehaztu gabea eta funtsa eskaseko salaketa» dela esan zuen Oskar Goñi Udalbiltzako bozeramaileak. Horren helburua «Udalbiltzaren izena zikintzea» dela gaineratu zuen. Bere ustez, atzean «Udalbiltzako nazioarteko lana oztopatzeko borondate maltzurra dago». Batasunak ere Udalbiltza «susmopean jartzea helburu duen operazio politiko-judizial batean» kokatu zituen atxilotetak.

Bestalde, Udalbiltzako ordezkarien ondoren atzo ziren deklaratzekoak Uruguain atxilotutako Josu Lariz eta Ricardo Callo errefuxiatuak.

**LAB.** Diezen ustez, PPK ez du jarrera «positiborik» eragile aktiboa izateko

## Lizarra-Garazi berreskuratu eta sozialistak erakarri behar direla uste du Diezek

Agentziak | **BILBO**

Rafa Diez Usabiaga LABeko idazkari nagusia sektore aberzale eta aurrerakoen arteko itun baten alde azaldu zen atzo. Horretarako, lehenik Lizarra-Garaziren Ituna berreskuratu eta, gero, sozialistak bezalako beste sektoreak itunera erakarri behar direla uste du.

«Herri honek Maltzaga I eta

Maltzaga II behar ditu. Maltzaga I Lizarra-Garaziren berreskurapena izan behar du. Eta Maltzaga II, beste sektore politikoek horri egin behar dizkion ekarpenak dira. PSE, PSN eta PSC alderdiez ari gara», esan zuen LABeko buruak.

Bere ustez, PPK ez du «ez gaur, ez bihar eta ez etzi» jarraera «positiborik» izango eragile aktiboa izateko, alderdi horrek

«PSOEn laguntzarekin prozesua blokeatu duelako». Hori dela eta, Diezen aburuz, «gatazkaren konponbide bat» eraman beharko diote Espainiako Gobernuari, «bera bakarrik ez delako konponbidera joango».

LABeko idazkari nagusiaren iritziz, «bateratasun puntu bat» bilatu behar da ideologia guztien artean, eta hori «eskubide indibidual eta kolektibo guztien errespetuan» oinarrituta egon behar du. Autodeterminazio eskubidea eskubide indibidualekin eta bizitzaren eskubidearekin «elkartu» behar dela deritzo, gailenduko denik izan ez dadin.

**JAURLARITZA.** Jarraipen batzordea eratu dute

## Gobernuak «proiektua, ideiak eta erritmoa» dituela diote EAJk, EAK eta IUK

Fl. | **GASTEIZ**

Jaurlaritzaren jarraipen batzordea eratu zuten atzo EAJk, EAK eta IUK, eta lehen bilera egin zuten Juan Jose Ibarretxe lehendakariarekin batera. Bi ordu eta erditik gorako bilera egin zuten egoera politikoa aztertzeko eta Jaurlaritzak eta Legebiltzararako aurrean dituzten erronkak zehazteko. Horiei aurre egiteko, Ibarretxeren gobernuak «ideiak, proiektuak eta erritmoa» badituela esan zuen Joseba Egibar ordezkari jeltzaleak.

Jarraipen batzordea gutxienez hiru hilean behin bilduko da egoeraren azterketa egiteko. Lehen bilera hau «osasuntsu» ikusi dute hiru alderdietako ordezkariak. Hala ere, ez zuten zehaztu nola aterako duten aurrera datorren urteko aurrekontu proiektua edo autogobernuan sakontzeko erabakiak nola hartuko dituzten. Bakarrik Jaurlaritzak erabiliko dituen printzipioak nabarmen-

du zituzten EAJ, EA eta IUKo eledunek.

«Gobernu honek gizartea zuzenduko du herritarren arazoak konpontzeko», esan zuen Rafael Larreina EAKo kideak. Lehenago Javier Madrazo IUKoak ia hitz berberak erabili zituen: «Gobernu honek inizatibak hartuko ditu arazoei aurre egiteko. Bakegintzan bere arrastoa agerian utziko du, gainera».

**PSEk ez du horrela ikusten**

Goizean Jaurlaritzaren jarduna kritikatu zuen Rodolfo Ares PSE-EEko eledun sozialistak. Ibarretxek gobernu eratu zuenetik ehun egun bete direla eta, haren jarduna deskalifikatzeko aprobetxatu zuen.

«Jaurlaritzaren lehen tasuna da proiektu erabat nazionalista egitea. Oinarria litzateke Estatutua haustea burujabetasunaren bidea egiteko. Horregatik lanean ari da nazionalistek laguntzeko. IUekin gainera joera hori indartu egin da», esan zuen Ares.

**48egun**  
dena eurotan erabiltzeko

Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputazio Foral de Bizkaia

BIBOKO BERRAZKERTZA GANBERA  
CAMARA DE COMERCIO DE BILBAO

**4ordu**  
zeure empresa prestatzeko

**Hurrengo urtarrilaren 1ean**, diru eragiketa guztiak eurotan egingo dira. Oso denbora gutxi falta da eta enpresak bere sistemak prest izan behar dituzte egun horretatik aurrera txanpona berria lan egiteko.

**Prest egotea erraza da**, 4 orduko kurtso batekin, zure enpresa gai izango da Euroak arlo bakoitzean izango duen

eragiña ezagutzeko: Administrazio, Zergak, Giza baliabideak, merkatal, informatika, etc.

**Ez utzi aukera hau pasatzen. Azkena da eta.**

Dei ezazu orain Eurobizkaia-ra eta informa zaitez.



CENTRO DE INFORMACIÓN SOBRE EL EURO DE BIZKAIA-EUROALBISTEAK  
Tel. 944 39 58 58

